

## **STELLUM CAPITALEK 200 MILIOI EURO BAINO GEHIAGO INBERTITUKO DITU HAZKUNDE-POTENZIAL HANDIA DUTEN ENPRESETAN**

- **Inbertsio-kudeatzaile hau Artizarra Fundazioak sortu du inbertsio alternatiboko industriaren garapena sustatzeko asmoz, sustraitzea, ekitatea eta jasangarritasuna ardatz.**
- **Bestalde, Artizarra Fundazioa lurraldean inpaktua eragin eta gizartea zein ekonomia eraldatzea xede duten Euskadi eta Nafarroako zenbait profesional eta enpresabururen bultzadaz sortu da.**
- **Kudeatzaileak lau inbertsio-bideratzaile osagarri ditu: Growth I, Euskadiko, Nafarroako eta hauen eraginpeko eremuetako partaidetza minoritarioetarako, nagusiki; Food &Tech I, elikagaien eta edarien sektorerako eta hauen balio-kate osorako; eta Easo Ventures I eta II, sektore anitzeko venture capital proiektuetarako.**
- **Egun, Stellum Capitalek funts bat itxia du, eta beste hiru kaptazioaldian, eta kapital konprometituaren helburuak lortzeko % 70ean daude, batez beste.**
- **Gainera, Stellum Capitalek 66 enpresa-partaidetza egin ditu bere inbertsio-bideratzaileen bitartez.**

***Bilbon, 2023ko ekainaren 16an.*** Stellum Capital kapital pribatuaren kudeatzaileak 200 milioi euro baino gehiago inbertituko ditu hazkunde-potentzial handia duten enpresetan. Inbertsio-kudeatzaile hau Artizarra Fundazioak sortu du inbertsio alternatiboko industriaren garapena sustatzeko asmoz, sustraitzea, ekitatea eta jasangarritasuna ardatz. Horren harira, Artizarra Fundazioa lurraldean inpaktua eragin eta gizartea zein ekonomia eraldatzea xede duten Euskadi eta Nafarroako zenbait profesional eta enpresabururen bultzadaz sortu da. Jon Ander de las Fuentes du presidente, eta gaur, Juan Mari Ochoa eta Jose Pozarekin batera eta gainerako patrioiak ondoan zirela, Fundazioaren printzipioak eta helburuak aurkeztu ditu: “Euskadi eta Nafarroako profesional eta enpresaburuek osatutako taldea gara, eta aurrerapauso bat ematea erabaki dugu gure enpresa-sarea bultzatzeko, enpresen hazkundean

lagunduz”, adierazi du Jon Ander de las Fuentesek. Horrelaxe sortua da Artizarra Fundazioa, inpaktua eragin eta lurraldeko gizarte nahiz ekonomiaren eraldaketa erraz dezaketen pertsona zein erakunde publiko eta pribatuekiko lankidetzak bidezko ekimenak sustatzeko asmoz, betiere, ingurunean balioa eta aberastasuna sortzeko helburuari begira, itzulkin soziala sortzeaz gain.

Gizarte-ekintza hau Stellum Capital kudeatzailearen bidez gauzatuko da. Kudeatzaile honek inbertsio-estrategia osagarriak biltzen ditu, eta sektorean esperientzia handia duten 15 profesionalak osatzen dute. Stellum Capitalen bokazioa enpresa txiki eta ertainei hazkunde-plan organiko zein ez-organikoak diseinatzen eta gauzatzen laguntzea da. Horretarako, lehen mailako profesional-taldea dute, baita estrategia osagarriak dituzten hainbat inbertsio-bideratzaile ere kudeaketapean. Gainera, Pablo Echarte zuzendari duen Stellum Capital sentikorra da bere jarduerak gizartean nahiz ingurumenean eragiten duen inpaktuarekin, eta harekin lankidetzan diharduten enpresen sustraitzea indartzen saiatzen da.

Kudeatzaileak 150 milioi euro ditu dagoeneko kudeaketapean, 3 estrategia osagarriren eta 4 inbertsio-bideratzailearen bidez (horietako 3 fundraisingean), growth-etik venture-raino. 2024aren hasierarako 200 milioiko kudeaketa lortzea du helburu.

“Estrategia horien barruan, filosofiagatik eta merkatuaren hurbiltasun eta ezagutzagatik, inbertsio gehienak Euskadin eta Nafarroan egingo ditugu, eta ildo horretan, egun inbertituta dagoen diruaren % 80 baino gehiago lurralde horietan dagokie”, Pablo Echarte Stellum Capitaleko CEOak azaldu duenez. “Baina honek ez du esan nahi eremu horretatik kanpo inbertitzeko aukerarik ez dugunik edo gure helburu bakarra hori denik”. Growth I, Food & Tech I eta Easo Ventures I eta II dira inbertsio-bideratzaileak.

### **Stellum Growth I**

Pablo Barojak zuzenduta, partaidetzak, gehien bat minoritarioak, hainbat sektoretako enpresetara hedatu ditu, bereziki Euskadin eta Nafarroan, haien hazkundera eta garapenean laguntzeko asmoz, kudeaketan modu aktiboan parte hartuz.

Une honetan, bideratzailea inbertsio-aldian dago, fundraisingaren azken fasean.

Datu batzuk

- ✓ Private equity
- ✓ Hasiera-data: 2022
- ✓ Helburuko tamaina: 150 milioi (Gehienez, 200 milioi)
- ✓ Kapital konpometitua maiatzaren 31n: 81 milioi euro
- ✓ Aurreikusitako inbertsioak: 8-12
- ✓ Egindako partaidetzak: Envaplaster, Eper Metallic Sollutions eta Tecnimoem Care.

### **Stellum Food&Tech I**

David Martínezek zuzenduta, honen jarduna elikaduraren sektoreko enpresa txiki eta ertainetan partaidetza minoritarioak hartzea da nagusiki, balio-kate oso barne hartuz eta horiexei lotutako teknologiei eta ekoizpen-prozesuei erreparatuz. Inbertsioaren helburua konpainien hazkundera eta garapena bultzatzea da, jarduera estrategikoetan modu aktiboan parte hartuz eta eraginez. Une honetan, bideratzailea inbertsio-aldian dago, fundraisingaren azken fasean.

#### Datu batzuk

- ✓ Private equity
- ✓ Hasiera-data: 2022
- ✓ Helburuko tamaina: 50 milioi (Gehienez, 60 milioi )
- ✓ Kapital konpometitua maiatzaren 31n: 33 milioi euro
- ✓ Aurreikusitako inbertsioak: 8-15
- ✓ Egindako partaidetzak: Uvesco, Envaplaster eta Syra Coffee

### **Easo Ventures I eta II**

Pedro Muñoz Barojak zuzenduta, Easo Ventures, hasierako faseetan hazkunde-potentzial handia duten proiektu eta enpresei babesa eta laguntza emateko xedez sortu da, inbertsioa, aholkularitza eta esperientzia eskainiz.

Easo Ventures I inbertsio-aldia amaitu eta kudeaketa-fasean dago. Easo Ventures II inbertsio-aldian dago, fundraisingaren azken fasean.

#### Datu batzuk

#### EasoVentures I

- ✓ Venture Capital

- ✓ Hasiera-data: 2018
- ✓ Amaierako kapital konprometitua: 18,4 milioi
- ✓ Partaidetzak: 39 (34 aktiboak dira gaur egun); horietatik % 67 Euskadin eta Nafarroan

#### EasoVentures II

- ✓ Venture Capital
- ✓ Hasiera-data: 2022
- ✓ Helburuko tamaina: 25 milioi (Gehienez, 30 milioi )
- ✓ Kapital konprometitua maiatzaren 31n: 16,5 milioi euro
- ✓ Aurreikusitako inbertsioak: 40-50
- ✓ Egindako partaidetzak: 26 gaur arte; horietatik % 50 Euskadin eta Nafarroan

#### **Artizarra Fundazioari buruz**

Duela urtebete, balio pertsonalak eta egungo gizarteari buruzko ikuspegia partekatzen dituzten Euskadi eta Nafarroako ibilbide luzeko enpresaburu eta profesionalen talde batek Artizarra Fundazioa bultzatzea erabaki zuen. Honen helburua lurraldeko garapen jasangarrirako palanka izan daitekeen industria arloko inbertsio kultura sustatzea da, gizarteari aberastasuna eta jasangarritasuna emateko eta enpresa-ehunaren sustraitzea mantentzen laguntzeko.

Horren harira, Stellum Capital inbertsio-bideratzaile pribatuen kudeatzailea sortu dute ekintzailatza bultzatzeko eta start-up zein enpresa txiki eta ertainen hazkundean laguntzeko asmoz. Stellum Capitalak industria, zerbitzu, teknologia edota nekazaritzako elikagaien sektoreetako enpresetan inbertitzen duten hainbat inbertsio-bideratzaile ditu kudeaketapean.

Stellum Capitali esker, Artizarra Fundazioak hezkuntza, jasangarritasuna eta gizarte-inpaktu positiboa zeharkako ardatz dituzten hainbat proiektu bultzatu ahal izango ditu.

Artizarra Fundazioaren bultzatzaileek konpromisoa irmoa dute lurraldearekin eta, batez ere, etorkizuneko garapenaren alde konprometituta dauden pertsonekin. Eta oraingoa da frogatzeko unea.

#### **Stellum Capitali buruz**

Stellum Capital kapital pribatuak bideratzea xede duen kudeatzaile independentea da. Funts horiek inbertitzaile publiko, instituzional eta pribatuengandik jasotzen dira. Hainbat inbertsio-estrategia dituzten baliabideak erakarri eta kudeatzea da eginkizun

nagusia, jasangarritasunari dagozkion estandar altuei eutsiz. Honen sustatzailea dugu Artizarra Fundazioa, duela bi urte balio pertsonalak eta egungo gizarteari buruzko ikuspegia partekatzen dituzten Euskadi eta Nafarroako enpresa-ibilbide luzeko profesional eta enpresaburuen talde batek sortua. Profesionaltasuna eta konfiantzazko ingurunea sortzea dira bere kudeaketaren oinarriak.

Stellum Capitali esker, Artizarra Fundazioak hezkuntza, jasangarritasuna eta gizarte-inpaktu positiboa zeharkako ardatz dituzten hainbat proiektu bultzatu ahal izango ditu. Fundazioaren bokazioaren harira, kudeatzailea sentikorra da bere jarduerak gizartean nahiz ingurumenean eragiten duen inpaktuarekin, eta harekin lankidetzan diharduten enpresen sustraitzea indartzen saiatzen da.